



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKLUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

# **Sektore pribatuan sexu-diskriminazioa jasan duten herritarrak artatzeko zerbitzua**

## **2015. URTEKO TXOSTENA**



ATARIKOA.....	3
1. ESPARRU OROKORRA.....	4
1.1 Artatutako kasuak .....	5
1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna .....	6
1.3 Artatutako kexak eta salaketak .....	7
2. MARKO JURIDIKOA ETA IKERTUTAKO KEXA ETA SALAKETEN TRATAMENDUA. ....	9
2.1 Hedabideak eta publizitatea.....	10
2.2 Lan-eremua .....	24
2.3 Kirol-eremua .....	27
2.4 Beste eremu batzuk .....	29
3. BIDERATUTAKO ETA GUTXIETSITAKO KEXA ETA SALAKETAK .....	32
3.1 Bideratutako kexak .....	32
3.2 Gaitzetsitako salaketak .....	34
4. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK.....	35

## ATARIKOA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, otsailaren 16ko 3/2012 Legearen 70. artikuluan ezarritakoa betetzeko, 2015. urteko txostena egin du; bertan, artatutako kasuen zerrenda jasotzen da, sektore pribatuan pairatutako sexu-diskriminazioagatik herritarrei arreta emateko. Halaber, baztertutako kexa eta salaketen zerrenda jasotzen da, bai eta arrazoiak ere.

Txostena lau ataletan egituratzen da. Lehenengoak sektore pribatuan sexu-diskriminazioa pairatu duten herritarrak defendatzeko jarduera-esparru orokorra du hizpide, eta erantzun diren kontsulta, kexa eta salaketen datu orokorrak eskaintzen ditu; bigarrenean, izapidetu diren kexa eta salaketei buruzko informazioa biltzen da, bai eta eremu bakoitzeko erreferentziako esparru juridikoa ere; hirugarrenak, berriz, gaitzetsi egin diren kexa eta salaketen eta beste sail batzuei bideratu zaizkien berri ematen du. Azkenik, laugarrenean, organismo eta erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak zehazten dira.

Ez da egin 4/2005 Legearen 75. artikuluan aipatzen den Lan arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 95.3 artikuluko irizpenik.

# 1. ESPARRU OROKORRA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzea xedatu zen, sexu-diskriminazioko egoeretan herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko organo gisa, eta bere funtzioak eremu pribatura mugatzen ziren.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituen otsailaren 16ko 3/2012 Legeak defentsa-erakundea ezabatu zuen, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari bere edukiak, eskumenak eta funtzioak esleitu zizkion; nolana ere, atxikipen organiko berria dela-eta, funtzioak pixka bat doitu ziren, eta, gaur egun, honako hauek ditu:


- a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderen batek eskaturik, sektore pribatuan ustez gertatutako sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak argitzeko.
- b) Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisikoei nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak egon daitezkeenean.
- d) Bitarteko izatea jazarpen sexistaren kasuak konpontzen laguntzeko.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, lege honetan xedatutakoarekin bat.
- f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan diskriminazioaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.

## 1.1 Artatutako kasuak

Herritarrek informazioa eta aholkularitza eskatu edo kexak eta/edo salaketak aurkeztu ditzakete, dela aurrez aurre, dela telefonoz edo posta elektronikoz edo posta arruntez. Nabarmen hobetu da zerbitzua 2015ean; izan ere, arreta-puntu bana ireki da Bilbon eta Donostian (Gasteizen beste bat zegoen lehendik). Aurrez hitzordua hartu beharra dago.

2015ean, 381 kasu artatu dira. Hainbat bide hautatu dituzte herritarrek Emakunderekin harremanetan jartzeko: bertatik bertara (42 kasu), idatziz –posta elektronikoz edo eskutitz bidez– (52 kasu) eta telefono bidez (gainerako kasuak).

Berehala erantzun diren kontsultak alde batera utzita, 128 kasuri idatzizko erantzuna eman behar izan zaie, bai eta azterlan xehakaturia egin ere. Horien artean, honako mota hauek bereizten dira: 62 kontsulta (% 49), 58 kexa (% 45) eta 8 salaketa (% 6).




## 1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna

Goian aipatutako kasuen gaietara eta maiztasunari helduta, honako banaketa hau ikusten da:

- Jaso diren eskaeren herenak baino gehiagok (% 35) **lan-eremuari** egiten diote erreferentzia eta, zehazki, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztatzeko eskubideak baliatzeari, bai eta amatasun eta aitatasunagatikoko diskriminaziozko tratuei ere.
- **Hedabideen eta publizitatearen** eremuan, gora egin du erreklamazio-kopuruak; kasuen % 35 izan dira. Uste dugu bi arrazoi nagusiren ondorioz gertatu dela hori: batetik, BEGIRA publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeak (360/2013 Dekretuak arautzen du) egiten duen lanaren ondorioz eta, bestetik, Emakunde herritarrentzako egiten ari den komunikazio-jardueren ondorioz.
- **Kirol-eremuari** helduta (% 4,5), kasu gehienak emakumezko kirolariek jasotzen duten tratuarekin lotuta daude.
- Azkenik, hainbat gairi buruzko eskaerak «**beste eremu batzuk**» eremuan (% 25,5) bildu dira; hauei buruzkoak, esaterako: alarguntza-pentsioa, laguntzak eta indarkeria.


### Kasuak, jarduera-eremuaren arabera



### 1.3 Artatutako kexak eta salaketak

2015ean, 58 kexa eta 8 salaketa<sup>1</sup> jarri zituzten herritarrek Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen. Komunikazioaren eta publizitatearen eremuan izapidetu dira kasu gehien. Bestalde, lanaren eta kirolaren eremuetan ere, kasu asko izapidetu dira.

Jarraian, banaketa aurkeztuko dugu, eraginpeko eremuen arabera:



<sup>1</sup> **Kexa** gisa sailkatzen dira ustez sexu-diskriminazioa pairatu duen pertsona batek edo pertsona talde batek aurkeztutakoak eta **salaketa** gisa, berriz, sexu-diskriminaziorik pairatu ez duen baina halako egoera baten berri ematen duen pertsona batek edo pertsona talde batek jarritakoak. Hedabideei eta publizitateari lotutako kasuak kexa gisa sailkatzen dira, 360/2013 Dekretuan erabiltzen den terminologia errespetatzeko.

Atarikoan aipatu bezala, sexu-diskriminazioa pairatu duten herritarrak defendatzeko eskumena du Emakundek, baina soilik eremu pribatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. Beraz, eremu publikoari edo beste lurralde-eremu bati lotutako kexa eta salaketak erakunde eskudunei bideratu zaizkie. Zehazki, kexa bat Arartekoari bideratu zaio, hura baita Euskadiko eremu publikoan eskumena duena. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera-eremutik harago doazen kasuak (13 kexa) Espainiako Emakumearen Institutuari bideratu zaizkio. Halaber, 2 kexa bideratu zaizkio Herriaren Defendatzaileari.

Azkenik, oro har, ez dira Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen ardurakoak ez epai irmoa duten edo ebazpen judizialaren zain dauden kexak, ez pertsonen intimitateari buruzkoak, ez eta sexu-diskriminazioarekin zerikusirik ez dutenak ere. Arrazoi horiek tarteko, 3.2 atalean jasotako 2 salaketa baztertu dira.



## 2. MARKO JURIDIKOA ETA IKERTUTAKO KEXA ETA SALAKETEN TRATAMENDUA.

sexu-diskriminazioko egoeretan herritarrak defendatzeko jarduketaren esparru juridikoa, gaur egun, zabala eta konplexua da. Jarraian, berdintasunerako eta sexu-diskriminaziorik ezerako eskubidearen alde egitea babesten duten **oinarrizko arauen** aipamena dugu:

- Emakumearen aurkako Bazterkeria Modu guztiak Ezabatzeko Hitzarmena; NBEren esparruan hartutako nazioarteko araua –horren bidez, estatu sinatzaileek, bitarteko egoki guztien bidez eta luzapenik gabe, emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko politika jarraitzea hitzartu dute–. Hori horrela: «Emakumearen aurkako diskriminazioa» esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako diskriminazio, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarrizko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexu-diskriminazioa gailendu.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzkoak, xedatzen du emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak edozein motatako diskriminazio baztertzen duela, zuzeneko edo zeharkakoa izan, sexu arrazoiagatik eta, batez ere, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak –3/2012 Legeak aldatuta–, tratu-berdintasunaren printzipioaren barruan, pertsonen sexuan oinarritutako diskriminazio oro debekatzen du, zuzena ala zeharkakoa izan eta horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere.

## 2.1 Hedabideak eta publizitatea

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hala aginduta, publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez-sexistarako Aholku Batzordeak –Begira– , 360/2013 Dekretuak arautuak, jarduera-esparrua publizitatera zabaldu du, euskarria edozein dela ere, bai eta titulartasun publikoko eta pribatuko gizarte-komunikabideetara ere, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako erakunde elkargokidearen izaera juridikoari eusten dio. Lankidetzako barne-markoa dago Herritarren Eskubideak Defendatzeko Arloaren eta Begira Batzordearen artean. Horrela, Herritarren Eskubideak Defendatzeko Arloa Begira Batzordearen euskarri da, eta herritarrek eta Batzordeak berak ofizioz jarritako kexak kudeatzen ditu.

Lankidetzaren esparruan, 2015ean, 45 eskaera jaso eta izapidetu dira eta horiek 43 kexa ekarri dituzte komunikazioaren eta publizitatearen berariazko eremuan. Hori horrela izanik, % 26ko baino gehiagoko igoera izan da aurreko urtearekiko.

2015ean, jasotako kexetan oinarrituta, 30 gomendio eman zaizkie zenbait erakunderi, eta 13 kexa Espainiako Emakumearen Institutuaren Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu dira.

Hona hemen kexen ezaugarri orokorrak:

- Hamar kexatik sei publizitatearen eremukoak dira. Hedabideen eremuan jasotakoei dagokienez, ia % 10 areagotu dira 2014arekin alderatuz gero.
- Kexa gehienak idatzizko prentsari, telebistari eta publizitate estatikoari buruzkoak dira (ordena horretan). Aurreko ekitaldiarekiko aldea: web-inguruneari buruzko kexak 4. posturaino jatsi dira.
- Gehien aipatzen den kategoria, alde handiz gainera, EMAKUMEAREN GORPUTZA = OBJEKTUA da, bai publizitatean bai komunikabideetan. Ondoren, GENERO ROLAK eta ESTEREOTIPOAK daude.
- Aurreko urtean ez bezala, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA kategoria publizitatean eta komunikabideen eremuan agertzen da.
- Urteko sasoi batean ere ez da beste batean baino nabarmen kexa gehiago jaso.
- Bai publizitatean, bai komunikabideetan, kasu batzuetan kexa bat baino gehiago erregistratu dira eduki berari buruz.

- Erabilitako bideen ezaugarri orokorrei erreparatuta, salatu den publizitate gehiena EAetik kanpoko erakundeei dagokie, beraz, eskumena duten organismoen bideratu zaizkie (13 kasu).

<b>Q20152008 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Prestakuntza bati buruzko iragarkia publizitate-hesi batean. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da publizitateko eskolarekin, kexaren berri emateko, eta bere burua defendatzeko alegazioak egin ditzan.
<b>Emaitza</b>	Eskola ez dago ados kexarekin, eta ez du uste iragarkia sexista denik. Emakundek zera gomendatu dio, publizitatea egitean irudi ez-sexista nabarmendu dadila, 25 urte baino gehiagoko ibilbideari jarraikiz, eta eskolaren arabera, «emakumeak bere inguruan duen rola zorrotz babestu dugu beti, eta lengoaiaren eta emakumearen irudiaren erabilera zuzena, berdintasuneko eta paritarioa sustatu dugu beti, dela gure bezeroentzako egin ditugun ekintza eta kanpainetan, dela gure barne- eta kanpo-komunikazioan».

<b>Q20150011 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko hedabide batean argitaratutako albistea. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta gomendio bat igorri dio, egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihesteko.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.



<b>Q20150012 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Euskal elikagai-marka baten iragarkia. Genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da enpresarekin, kexaren berri emateko, eta bere burua defendatzeko alegazioak egin ditzan.
<b>Emaitza</b>	Enpresa ez dago ados kexarekin, eta ez du uste iragarkia sexista denik. Emakundek zera gomendatu dio: egiten duen publizitatean emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzen duten ereduak proposatzeko, gizarte honek benetako berdintasunaren alde egin dituen lorpenak hutsaldu gabe.

<b>Q20150013 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Danimarkako presidenteari buruzko albistea, EAEko hedabide batean argitaratutakoa. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta zera gomendatzen dio: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihesteko.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.

<b>Q20150014 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEtik kanpoko saltegi handi batzuen webguneko edukia. Genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.



<b>Q20150015 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Arropa-marka baten iragarkia Bilboko saltoki baten publizitate-hesian. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da saltokiarekin, kexaren berri emateko, eta bere burua defendatzeko alegazioak egin ditzan.
<b>Emaitza</b>	Enpresa ez dago ados kexarekin, eta ez du uste iragarkia sexista denik. Emakundek zera gomendatu dio: publizitate-iragarkiek bi sexuen irudi anitza agertzeko, edertasun-kanonak eta estereotipo sexistak alde batera utzita, eta askotan emakumeen eta gizonen osasun fisiko eta psikologikorako kaltegarriak diren gaur egungo kanonak baztertuta.

<b>Q20150022 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Marrazki bizidunen telesail bateko kapitulua euskal hedabide batean emandakoa. Emakumeen aurkako indarkeria. Estereotipoak eta genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin.
<b>Emaitza</b>	Hedabideak honako konpromiso hauek hartu ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Salatutako kapitulua kentzea.</li> <li>- Egunez ematetik gauzez ematera igarotzea.</li> <li>- Kapitulu berriak emateko eta eskuratzeko eskubideak ez berritzea.</li> </ul>

<b>Q20150024 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Euskal kirol-denda baten publizitate-liburuxka. Genero-estereotipoak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da enpresarekin, kexaren berri emateko, eta bere burua defendatzeko alegazioak egin ditzan.
<b>Emaitza</b>	Denda ez dago ados kexarekin, eta ez du uste liburuxkako irudiak sexistak direnik. Emakundek zera gomendatu dio: egiten duen publizitatean neska-mutilak eta gizon-emakumeak aniztasunez agertzeko, rol ezberdinekin eta jokaera ezberdinekin, kolore, nahi, zaletasun, lanbide eta abarrak batzuen edo besteen eskusibo balira bezala identifikatzea saihestuta.



<b>Q20150025 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Alderdi politiko baten hauteskunde-kanpaina. Genero-estereotipoak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20150027 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Espainiako optiken talde baten iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20150037 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Elikagai baten ontzietako irudiak. Genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20150039 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Euskal hedabide baten programa, kanpoko lankidetzan eta parte-hartzean parekotasunik ez dagoena. Genero-estereotipoak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin.
<b>Emaitza</b>	Hedabideak adierazi du programan parte hartu duten kanpoko 19 pertsonetatik 8 emakumeak direla. Beraz, ez dago ados herritarrak egindako salaketarekin; dena dela, programaren arduradunei helaraziko die kexa. Emakundek gomendioak igorri dizkio.



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ELKARLENDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Q20150040 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Euskal hedabide betan azaleko irudiak. Genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta zera gomendatu dio: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihestea.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.

<b>Q20150043 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Airelinea baten publizitatea euskal garraiobide batean. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da garraiobidea kudeatzen duen enpresarekin, kexaren berri emateko.
<b>Emaitza</b>	Garraiobidea kudeatzen duen enpresak berdintasunarekiko konpromisoa berretsi du, eta publizitate-kanpaina kendu.

<b>Q20150062 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Gertaeren atal berria EAEko hedabide batean. Emakumeen aurkako indarkeria.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta zera gomendatu dio: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihestea.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.

<b>Q20150063 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko prentsak tratu berezia eman die bi jai-ekintzari. Genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta gomendio bat igorri dio, egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihesteko.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.



<b>Q20150064 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Bilboko kabaret-antzerki baten publizitate-kartela. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da enpresa sustatzailearekin, kexaren berri emateko, eta bere burua defendatzeko alegazioak egin ditzan.
<b>Eraitza</b>	Enpresa ez dago ados kexarekin, eta ez du uste publizitatea sexista denik. Emakundek zera gomendatu dio enpresari: publizitatea egiten duenean emakumeak aniztasunez ager ditzan, edertasun-kanonak eta estereotipo sexistak alde batera utzita.

<b>Q20150065 espedientea*</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Airelinea baten publizitatea euskal garraibide batean. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da garraibidea kudeatzen duen enpresarekin, kexaren berri emateko.
<b>Eraitza</b>	Garraibidea kudeatzen duen enpresak berdintasunarekiko konpromisoa berretsi du, eta publizitate-kanpaina kendu.

\* Q20150043 kexaren berbera

<b>Q20150066 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko hedabide batean argitaratutako prentsa-artikulua. Emakumeen aurkako indarkeria.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta zera gomendatu dio: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihestea.
<b>Eraitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.

<b>Q20150067 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko hedabide batean argitaratutako albistea. Emakumeen aurkako indarkeria.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta zera gomendatu dio: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihestea.
<b>Eraitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.





<b>Q20150068 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko hedabide batek argitaratutako albistea. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta zera gomendatu dio: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihestea.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.

<b>Q20150069 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko hedabide baten albistea. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta zera gomendatu dio: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihestea.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.

<b>Q20150074 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko hedabide batek argitaratutako albistea. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta zera gomendatu dio: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihestea.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.

<b>Q20150080 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Hurrei zuzendutako elikagai baten iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Madriden egoitza duen multinazional batena da produktua. Beraz, Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.



<b>Q20150081 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Eskuila batzuei buruzko publizitate-bideoa, multinazional batena den saltoki batean ematen dena. Genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Eraitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20150082 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Diskoteka bateko emanaldi bati buruzko publizitate-iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da diskoteka kudeatzen duen enpresarekin, kexaren berri emateko.
<b>Eraitza</b>	Enpresa ez dago ados kexarekin, eta ez du uste irudiak sexista direnik. Emakundek zera gomendatu dio enpresari: antolatzen dituen ekitaldiak hedatzean, irudi sexistarik ez erabiltzeko.

<b>Q20150083 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Diskoteka bateko emanaldi bati buruzko publizitate-iragarkia sexista. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da diskoteka kudeatzen duen enpresarekin, kexaren berri emateko.
<b>Eraitza</b>	Enpresa ez dago ados kexarekin, eta ez du uste irudiak sexista direnik. Emakundek zera gomendatu dio enpresari: antolatzen dituen ekitaldiak hedatzean, irudi sexistarik ez erabiltzeko.

<b>Q20150086 espedientea*</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Haurrei zuzendutako elikagai baten iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago; izan ere, produktua Madrilen egoitza duen multinazional batena da.
<b>Eraitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

\* Q20150080 kexaren berbera



<b>Q20150088 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Nagusiki haurrek kontsumitzen duten elikagai batekin batera oparitzen dituzten pegatinak. Genero-estereotipoak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20150089 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Espainiako telebista-lehiaketa. Genero-estereotipoak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20150091 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Diskoteka bateko emanaldi bati buruzko publizitate-iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da diskoteka kudeatzen duen enpresarekin, kexaren berri emateko.
<b>Emaitza</b>	Emakundek zera gomendatu dio enpresari: emakumeak agertzen dituen horiek definitzen dituen ezaugarria ez dadila izan sexurako prest egotea, eta ez ditzan gauza bihurtu, aldiz, emakumeen benetako irudi bat helaraz dezala, aniztasunez.

<b>Q20150097 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko hedabide batean argitaratzen diren prostituzio-iragarkiak. Emakumeen aurkako indarkeria.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Komunikabidearekin harremanetan jarri da. Emakundek zera gomendatu dio hedabideari: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexistak saihesteko.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Q20150101 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEn ematen den telebista-programa. Genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin.
<b>Emaitza</b>	Hedabideak konpromisoa hartu du programaren arduradunei kexaren berri emateko. Emakundek zera gomendatu dio: egiten dituen hedapenetan lengoia sexista saihesteko.

<b>Q20150102 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Brikolaje-produktu baten iragarkia. Genero-estereotipoak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20150103 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Estatuko hedabide baten bertsio digitalean argitaratutako prentsa-artikulua. Emakumeen aurkako indarkeria.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20150104 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko hedabide batek argitaratutako albistea. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin, eta zera gomendatu dio: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihestea.
<b>Emaitza</b>	Ez da hedabidearen erantzunik jaso.



<b>Q20150108 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko saltoki-kate baten seinaleak. Genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da enpresarekin, kexaren berri emateko, eta bere burua defendatzeko alegazioak egin ditzan.
<b>Eraitza</b>	Enpresak aldatu egin ditu kartelak eta gaur egun saltoki guztietan jarrita dauden seinale berrien irudiak igorri ditu.

<b>Q20150111 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Euskadiko hiri bateko pareta bateko pintadak. Emakumeen aurkako indarkeria.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Kexaren berri eman zaio udaleko berdintasun-zinegotzigoari.
<b>Eraitza</b>	Zinegotzigo arduradunak jakinarazi du kendu egin dutela pintada eta konpromisoa hartu dute emakumeak iraintzen dituen eta/edo emakumeen kontrako indarkeriara bultzatzen duten pintadak berehala kentzeko.

<b>Q20150117 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Nazioarteko arropa-marka baten iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Eraitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20150118 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. EAEko aseguru-agentzia baten publizitate-kanpaina. Genero-rolak eta -estereotipoak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da enpresarekin, kexaren berri emateko, eta bere burua defendatzeko alegazioak egin ditzan.
<b>Eraitza</b>	Enpresa ez dago ados kexarekin, eta ez du uste publizitate-kanpaina sexista denik. Emakundek zera gomendatu dio enpresari: egiten duen publizitatean emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzen duten ereduak proposatzeko, generoetako bakoitzarentzat tradizionalki finkatutako jokaera-ereduak ez aurkezteko, eta publizitate-mezu guztietan sexu-, genero- eta familia-aniztasuna aurkezteko.



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Q20150119 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Marrazki bizidunen telesaila, euskal hedabide batean emandakoa. Genero-estereotipoak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hedabidearekin.
<b>Emaitza</b>	Emakundek zera gomendatu dio hedabideari: egiten dituen hedapenetan tratamendu sexista saihestea eta programazioak bi sexuen irudi anitza agertzea, ez estereotipoak.

<b>Q20150123 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Emanaldi bati buruzko publizitate-kartela, taberna batean jarrita dagoena. Emakumeen irudia gauza bihurtzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da taberna kudeatzen duen erakundearekin, kartela berehala kentzeko eskatzeko.
<b>Emaitza</b>	Emakundek egindako eskaera baino lehen kendu zuten kartela.

<b>Q20150124 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Administrazio publiko baten sustapen-bideoa. Genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da administrazio publikoarekin, kexaren xede den sustapen-bideoa aldatzeko eskatzeko.
<b>Emaitza</b>	Emakundek egindako eskaera baino lehen kendu zuten bideoa.

<b>Q20150125 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Begira. Hurrei zuzendutako Espainiako lehiaketa-programa. Estereotipoak eta genero-rolak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.



**EMKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKLUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

<b>Q20150131 espedientea</b>	
<b><i>Kexaren arrazoia</i></b>	Begira. Espainiako jostailu-denden kate bateko jostailu-katalogoa. Genero-rolak eta estereotipoak esleitzea.
<b><i>Emakunderen esku-hartzea</i></b>	Emakunderen eskumen-eremutik kanpo dago.
<b><i>Emaitza</i></b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

## 2.2 Lan-eremua

Lan-eremua da kontsulta, salaketa eta kexa gehien duen bigarren eremua eta, horren barruan, haurdunaldiarekin, amatasunarekin eta edoskitzearekin lotutako eskubideak dira garrantzirik gehien duten kontuak, bai eta familia- eta lan-bizitza uztartzeko baimenei buruzkoak ere. Kontsulta ugari jaso ditu, halaber, familia-etxeko enpleguari buruzko araudiak.

Hori horrela, aplikazio bereziko arau gisa honako hauek aipatuko ditugu:

- Langileen Estatutua; 17. artikuluari jarraikiz, nuluak izango dira sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak dakartzaten erregelamendu, hitzarmen, itun eta erabakiak.
- 39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Langileen familia- eta lan-bizitza uztartzea sustatzekoa. Lege hori oso garrantzitsua izan da, legegintza-aldaketak ekarri baititu lan-arloan, langileen lan- eta familia-erantzukizunak uztartzea errazteko.
- 56/2003 Legea, abenduaren 16koa, Enpleguarena; eta horren 22 bis artikulua, enplegua lortzeko diskriminazioa debekatzen duena.
- 1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Familia-etxeko zerbitzuaren izaera bereziko lan-harremana arautzen duena.

Eremu horren harira, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Herritarren Berdintasun Eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexa eta salaketan laburpen bat jaso dugu jarraian –horiei lotuta, bada, ikerketa-prozedura bat abiarazi da–, bai eta kasu bakoitzean egindako kontziliazio-proposamenena eta gomendioena ere.





<b>Q20150035 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Kontziliazio-eskubideak baliatzearen ondoriozko errepresaliak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek bitartekotza egin du eta langilearen eta enpresaren arteko akordioa lortu du.
<b>Emaitza</b>	Enpresak konpromisoa hartu du langilearen lehengo funtzioak eta kokalekua errespetatzeko. Emakundek zera gomendatu dio enpresari: langileek amatasun-bajan daudenen bitartean dituzten eskubideak errespetatzeko kasu guztietan.

<b>Q20150044 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Lanaldi-murrizketarako eskubidea ukatzea. Ordutegi-zehaztapena da arazoa.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek aldean arteko bitartekotza-lana egin du.
<b>Emaitza</b>	Langileak eta enpresak idatzizko akordioa sinatu dute, langileak familia- eta lan-bizitza uztartu ahal izan dezan.

<b>Q20150054 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Emakumezko ertzain bat kexu da, zailtasunak dituelako lan- eta familia-bizitza uztartzeko.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek jakinarazi dio eskumen-eremua Arartekoari dagokiola eta baimena eskatu dio erakunde horri bideratzeko.
<b>Emaitza</b>	Arartekoari bideratu zaio kasua.

<b>Q20150076 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Mutualitate batek oso interpretazio murriztailea egin du aktore baten amatasun-eskubideei buruz.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da demandatzailearekin.
<b>Emaitza</b>	Aplika dakioken lege-egoeraren txosten bat bidali zaio. Emakundek bertan behera utzi ditu jarduerak, gaia epaitegietara eraman baita.



<b>Q20150098 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Seme-alabak izateko adinean dauden eta kontziliazio-neurriak eskatu dituzten emakumeak kaleratzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde bitartekari-lanak egiten saiatu da.
<b>Emaitza</b>	Izapidetzen ari da.

<b>Q20150100 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Emakume bat kexu da bere aurreko funtzioetatik bereizi dutelako eta beste toki batean jarri dutelako amatasunaren ondoren.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da aldeekin.
<b>Emaitza</b>	Demandatzaileak epaitegietara eraman du kasua eta ebatzi egin da (Emakunde ezin da kasuan sartu).

<b>D20150130 espedientea</b>	
<b>Salaketaren arrazoia</b>	Emakumezko langileen mugikortasun geografikoa, kontziliazio-eskubideak baliatzeagatik.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek egoera aztertu du, eta aldeekin hitz egin du.
<b>Emaitza</b>	Langileek kontratuak desegitea onartu dute, baina kalte-ordainak hobetuta.

## 2.3 Kirol-eremua

**Kirol-eremuan** ere, zenbait kexa eta salaketa egin dira. Kirol-eremua dela eta, 3/2007 Lege Organikoak kirola garatzeko egitasmo publiko guztien diseinuan eta egikaritzean emakume eta gizonen arteko berdintasun errearen eta eraginkorraren irizpideak txertatzen dituela azpimarratzen du (29. artikulua). Hona hemen Herritarren Eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexa eta salaketen laburpena:

<b>Q20150010 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Emakume bat kexu da emakumezkoen futbol-partiduetan epaileak tratu iraingarria eta matxista eman diolako.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Informazio gehiago eskatu dio demandatzaileari, kexa onartu ahal izateko.
<b>Emaitza</b>	Eskatzaileak datu gehiago eman ez dituenek, Emakundek ez du idazkia onartu.

<b>Q20150049 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Kirol-federazio bateko emakume bat kexu da diskriminazioaz tratatu dutelako kideek. (Ehiza)
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Ikertzeko prozedura hasi da, baina ezin izan da diskriminaziozko tratua frogatu.
<b>Emaitza</b>	Emakundek zenbait gomendio egin dizkio kirol-federazioari.

<b>D20150056 espedientea</b>	
<b>Salaketaren arrazoia</b>	Emakumeei mugatu egin zaie kirol-instalazioen erabilera. (Futbola)
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek egoera aztertu du.
<b>Emaitza</b>	Emakumezko kirolarien egoera instalazioak erabiltzeari dagokionez.



<b>D20150128 espedientea</b>	
<b>Salaketaren arrazoia</b>	Emakume bat kexu da pilota-partiduetan ustez emakumeak diskriminatzen dituen praktika bat dela eta; alegia, beti emakumeak direla jokalariei laguntzen dietenak (toalla ematen eta abar).
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek aholkularitza eskaini dio salataileari.
<b>Emaitza</b>	Arartekoari bideratu zaio, udal-pilotaleku bat baita.

## 2.4 Beste eremu batzuk

Lan- eta kirol-eremuei lotutako kekek eta salaketak igorri dizkigute herritarrek, baina baita bi eremu horietan sartzen ez diren beste batzuk ere; esaterako, hauek:

<b>D20150003 espedientea</b>	
<b>Salaketaren arrazoia</b>	Emakume bat keku da argitaletxe batek «neskentzako ipuinak» eta «mutilentzako ipuinak» argitaratu dituelako, eta horiek kentzea eskatu du.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek bitartekari-lanak egin ditu argitaletxearen eta herritarraren artean.
<b>Emaitza</b>	Argitaletxeak bere jarrera defendatzen du, baina onartu du erne ibiliko dela ipuinok aurkezterakoan.

<b>D20150026 espedientea</b>	
<b>Salaketaren arrazoia</b>	Emakume bat keku da, museo batean, izotz-aroko erraldoiei eta giza bilakaerari buruzko erakusketa batean, emakumearen irudia falta delako.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek kebaren berri eman dio museoari. Museoko arduradunek adierazi dute ez direla horrekin ohartu, baina kontuan izango dutela.
<b>Emaitza</b>	Museoak adierazitakoa jakinarazi zaio herritarrari.

<b>D20150028 espedientea</b>	
<b>Salaketaren arrazoia</b>	Emakume bat keku da hirian «puntu beltzak» daudelako.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da hiriko udalarekin.
<b>Emaitza</b>	Udalak berehala konpondu du egoera.



<b>Q20150050 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Osasuneko langileak kexu dira ez dutelako emakumeen gorputzera egokitutako uniformerik.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek aldean arteko bitartekotza-lana egin du.
<b>Eraitza</b>	Langileek uniformeei buruz egin dituzten aldarrikapenak kontuan hartzeko konpromisoa hartu da.

<b>Q20150084 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Emakume bat kexu da Administrazio Publikoaren pentsio-sistema osagarria dela eta.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek jakinarazi dio kexaren eskumen-eremua Herriaren Defendatzailea dela. Baimena eskatu zaio hari bideratzeko.
<b>Eraitza</b>	Herriaren Defendatzaileari bideratu zaio kasua.

<b>Q20150094 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Emakume bat kexu da taberna batek Halloweenen zuen dekorazioa dela eta. Argazki bat bidali digu.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakundek argazkia baloratu du eta esku ez hartzea erabaki du.
<b>Eraitza</b>	Artxibatu egin da.

<b>Q20150116 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Gizon bat kexu da ingeleseko akademia batek emakumeentzako ikastaro bereziak eskaintzen dituelako.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da ingeleseko akademiarekin zein herritarrarekin.
<b>Eraitza</b>	Ez dago diskriminazio-zantzurik.



<b>Q20150129 espedientea</b>	
<b><i>Kexaren arrazoia</i></b>	Emakume bat kexu da ustez tratu iraingarria eman diotelako emakumeenganako indarkeriaren epaitegietan.
<b><i>Emakunderen esku-hartzea</i></b>	Emakundek demandatzaileari jakinarazi dio eskumen-eremua Herriaren Defendatzailea dela eta baimena eskatu dio kasua organismo horri bideratzeko.
<b><i>Eraitza</i></b>	Herriaren Defendatzaileari bideratu zaio.

### 3. BIDERATUTAKO ETA GUTXIETSITAKO KEXA ETA SALAKETAK

Lehen puntuan, jasotako kexak eta/edo salaketak bideratzeko edo gaitzesteko zer arrazoi ditugun adierazi dugu. Atal honetan, bideratutako edo gaitzetsitako kexa edo salaketa bakoitza eragin duten kausei buruzko informazioa zehazten da.

#### 3.1 Bideratutako kexak

Herriaren Defendatzailea	
<i>Espediente-zenbakia</i>	<i>Kexa</i>
Q20150084	Emakume bat kexu da Administrazio Publikoaren pentsio-sistema osagarria dela eta.
Q20150129	Emakume bat kexu da ustez tratu iraingarria eman diotelako emakumeenganako indarkeriaren epaitegietan.

Arartekoa	
<i>Espediente-zenbakia</i>	<i>Kexa</i>
Q20150054	Emakumezko ertzain bat kexu da, zailtasunak dituelako familia- eta lan-bizitza uztartzeko.





<b>Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategia</b>	
<b>Espediente-zenbakia</b>	<b>Kexa</b>
Q20150014	Begira. Espainiako saltegi handi batzuen webgunea. Genero-rolak.
Q20150025	Begira. Alderdi politiko baten hauteskunde-kanpaina. Genero-estereotipoak.
Q20150027	Begira. Espainiako optiken talde baten iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
Q20150037	Begira. Elikagai baten ontzietako irudiak. Genero-rolak.
Q20150080	Begira. Hurrei zuzendutako elikagai baten iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
Q20150086	Begira. Hurrei zuzendutako elikagai baten iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
Q20150088	Begira. Nagusiki hurrek kontsumitzen duten elikagai batekin batera oparitzen dituzten pegatinak. Genero-estereotipoak.
Q20150089	Begira. Espainiako telebista-lehiaketa. Genero-estereotipoak.
Q20150102	Begira. Brikolaje-produktu baten iragarkia. Genero-estereotipoak.
Q20150103	Begira. Estatuko hedabide baten bertsio digitalean argitaratutako prentsa-artikuluak. Emakumeen aurkako indarkeria.
Q20150117	Begira. Nazioarteko arropa-marka baten iragarkia. Emakumeen gorputza gauza bihurtzea.
Q20150125	Begira. Hurrei zuzendutako Espainiako lehiaketa-programa. Estereotipoak eta genero-rolak.
Q20150131	Begira. Espainiako jostailu-denden kate bateko jostailu-katalogoa. Estereotipoak eta genero-rolak.

### 3.2 Gaitzetsitako salaketak

Espediente-zenbakia	Salaketa
D20150030	Salmenta-establezimendu batean eduki pornografikoa duten bideoak saltzen direla salatzen da.
D20150036	Landetxe batean jarrera matxista izan dutela salatzen da.

## 4. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK

Beste erakunde batzuekiko harremanari dagokionez, 2015ean, kontaktuak eta bilerak izan dira erakunde publikoekin, lankidetzeta-mekanismoak zehazteko.

2014an, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zen Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin. Hitzarmen hori koordinazio- eta lankidetzeta-printzipioetan oinarritzen da. Printzipiook dira, bada, 2015ean zehar erakunde horrekin izandako harremanen funtsa. Esparru horretan egindako jarduera nagusia laneko osasunari buruzko jardunaldiak elkarrekin diseinatu eta antolatzea izan da.

Gainera, Emakunderen eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren edukia landu da 2015ean zehar. Harremanetarako bide azkarrak ezarri nahi ditu hitzarmenak, sektore pribatuan ustez jasandako sexu-diskriminazioko egoerak ikertzeko benetako informazioa lortzeko, eta kexa berberari lotutako baterako jarduerak adostu, bai eta bien interes eta erantzukizunekoak diren gaiei lotutako lankidetzeta eta jarduerak garatu ere.